

UDALAREN IKASTETXEETAN JATEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2024-2025 IKASTURTEAN

1.- Xedea eta helburua.

Deialdi honen xedea da 2024-2025 ikasturtean ikastetxeetan jateko dirulaguntzak ("jantokiko beka") emateko prozedura ezartzea.

Ikastetxe publikoetan jateko udal laguntza hauen helburu nagusiak hauek dira:

- a) Adingabeen elikadura egokia bermatzea, haien familiek, arrazoi ekonomiko edo sozialak direla-eta, ezin dutenean hori bermatu.
- b) Familia eta lana bateratzea, gurasoen lan ordutegia eta seme-alaben zaintza, bazkaltzeko orduan, bateragarriak izan daitezen.
- c) Dieta oso eta orekatuaren beharra duten haurrek jantokian parte har dezaten erraztea. Halaber, ohitura osasungarriak bultzatuko dira, jantokian gainerako umeekin bazkalduz.

Egia da aipatutako arrazoiak mota askotakoak direla. Hala ere, normalean horiek guztiek zerikusi nahiko zuzena dute familiaren egoera sozioekonomikoarekin. Hori dela eta, emanen den laguntza batez ere ekonomikoa da, gizarte eta hezkuntza arloko beste esku-hartze batzuekin batera koordinatuko den arren.

Deialdi honen xedearen ezaugarriak ikusirik, onuradunek ikasten duten ikastetxe publikoen eta/edo guraso elkarten laguntza eskatuko da, bai eta Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearena ere.

Deialdi honi dagokionez, familia unitatea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluan definitzen dena.

2.- Eskaera aurkezteko epea eta tokia

Interesdunek eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko dute Berriobeitiko Udalean (Udaletxe plaza 1, Antsoain). Eskabidea ereduaren araberakoa izanen da eta bertan emanen zaio.

Eskabideak aurkezteko epea **2024ko ekainaren 1etik 30era** bitartekoa izanen da, biak barne, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara edo egoitza elektronikoaren bitartez.

Udalak eskatzen ahalko du zuzendu daitezela akatsak edo justifikatu gabeko betebeharrak gehienez 10 eguneko epean, aurkezten den eskabidean halakoak atzematen badira. Epe horretan ez bazaio behar bezalako erantzuna ematen eskaerari, kasuan kasuko eskabidea ezetsiko da.

Eskaerak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu. Eskabideekin batera 4. oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko da.

Hala ere, salbuespen gisa, epetik kanpo aurkeztutako eskabideak onartuko dira, betiere epea ez bada bete, helbidez aldatu egin delako, Berriobeitiko udalerrian erroldatzearen ondorioz. Halakoetan, honako alderdi hauek frogatu beharko dira:

- Berriobeitiko udalerrian erroldatzea eskatu izana, oinarrietan ezarritako eskaera daten ondoren.
- Deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztea edo, halakorik ezean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren txosten bat edukitzea, egoera sozial eta ekonomiko zaurgarrian edo beste edonolako egoera zaurgarrian dagoela frogatzen duena eta dirulaguntza ematea justifikatzen duena, deialdi honen 1. klausulako a) puntuari aipatzen den xedearen aplikazioarekin bat.

3.- Betebeharrak

Honako betebeharrak hauek betetzen dituzten familia-unitateek eskatzen ahalko dituzte udal laguntza hauek:

a) Udalerriko bizilaguna egiazki izatea eta bertan erroldaturik egotea, eskabidea aurkeztean den unetik beretik.

b) Adingabeak derrigorrezko irakaskuntza mailetan dagokien ikastetxe publikoan eskolatuta egotea, edo hezkuntza administrazioak bideratutako beste ikastetxe publiko batean, aukeratu duten hizkuntza eredia herrian ez egoteagatik.

c) Administrazioaren beste esparru batzuetan gauza bererako laguntza eskatu izana jasoa izatea.

d) Dirulaguntza edo laguntza eman aurretik Udalarekiko betebeharrak eguneratuak izatea, horiek edozein motatakoak direla ere. Onuraduna Udalarekin zorretan badago, jakinarazi eta 10 egun balioduneko epea emanen zaio, haiek kita ditzan

Dena dela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 223. artikularekin bat, deialdi honetan partikularrendako arautzen diren dirulaguntzek izaera soziala eta laguntzazkoa dutenez, Udalak dirulaguntza eman ahalko die Udalarekiko betebeharrak eguneratu gabe dituzten pertsonen, haiek edozein motatakoak direla ere, udal organo eskudunak kasu bakoitzean ezartzen dituen irizpide eta baldintzetan oinarrituz.

e) Familiaren diru-sarrerak, kontzeptu guztiengatik, oinarri hauetako erreferentziako taula ekonomikoetakoak baino txikiagoak izatea, bizikidetasuneko familia unitatearen eta horiek kalkulatzeko aintzat hartutako kontzeptuen arabera. Diru-sarrerak kalkulatzeko, honako hauen **batuta** hartuko da kontuan: 2023. urteko errenta aitortzearen agertzen diren zerga-oinarriaren alde orokorra (**507. laukitxo**), **aurrezkiaren oinarri likidagarria** (8840. eta 8841. laukitxoak) eta errenta salbuetsiak (529. laukitxoak).

Familia unitatean %33ko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat baldin badago, kide bat gehiago kontatuko da.

FAMILIA UNITATEKO (FU) KIDEEEN KOPURUA	1. TARTEA	2. TARTEA	3. TARTEA	4. TARTEA
	FUko urteko diru-sarrerak, gehienez	FUko urteko diru-sarrerak, gehienez	FUko urteko diru-sarrerak, gehienez	FUko urteko diru- sarrerak, gehienez
2	15.600 €	16.800 €	18.000 €	19.200 €
3	16.920 €	18.360 €	19.680 €	21.000 €
4	18.360 €	19.680 €	21.000 €	22.320 €
5	19.680 €	21.000 €	22.320 €	23.640 €
6	21.000 €	22.320 €	23.640 €	24.960 €
7	22.320 €	23.640 €	24.960 €	26.280 €
8 eta gehiago	23.640 €	24.960 €	26.280 €	27.600 €
Gehienezko dirulaguntza, eguneko	2.5 €	2 €	1.5 €	1 €

Egoera ekonomikoa aurreko urtearekiko aldatu bada, salbuespen gisa, eta aldez aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen aldeko txostena izanik, Udalaren organo eskudunak aurreko taulan adierazitako etekinak gainditzen dituzten espedienteak baloratu ahalko ditu, betiere eskabidean era idatzian eskatzen bada eta frogatzen bada baldintza sozio-ekonomikoen aldaketa nabarmena dagoela 2024ko urtarrilaren 1etik eskabidea aurkeztu den egunera.

Eginbehar hauek dituzte onuradunek:

- Deialdi honetan arautzen den xedea betetzea.
 - Frogatzea, laguntzak ematen dituen organoaren aitzinean, baldintzak betetzen direla eta haurra eskolako jantokira joaten dela.
 - Kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta kontrol finantzarioak onartzea eta jarduketa horietan eskatzen zaizkien argibide guztiak ematea, informazio hori udal artxiboetan ez dagoenean.
 - Ondoko egoera hauetan gertatzen diren aldaketen berri ematea:
 - Asistentzia, jantokira eta ikastetxera (altak, bajak eta abar).
 - Adingabea ikastetxez aldatzea.
 - Onuradun berberak kontzeptu berberetatik laguntzak jasotzen baditu entitate publiko zein pribatuetatik.
- Horri dagokionez, jasotako laguntza guztien batura, deialdi honetakoa barne, ez da inola ere izanen diruz lagundutako jantokiaren kostuaren %90 baino handiagoa. Hala izanez gero, Berriobeitiko Udalak erregularizatuko ditu hasieran emandako zenbatekoak, betekizun hau betetzeko.
- Aitortutako eta jasotako laguntzak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua ezartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusten diren kasuetan eta deialdi honetan ezarritako kasuetan.
 - Oro har, aurreko puntuan aipatzen diren Legean eta Erregelamenduan dirulaguntza baten onuradunek dituzten betebeharrak betetzea.

4.-Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabide betea, Berriobeitiko Udalaren bulegoetan eta udal webean emanen den eredu normalizatuarekin bat. Gainerako datuekin batera, helbide elektroniko bat jarri beharko da.
- b) Familia unitatearen aurreko urteko (2023) errenta aitortpenaren kopia. Adingabeen zaintza partekatua kasuan, bi gurasoen errenta-aitortpena. Kasu horretan, urteko diru-sarrerak zenbatzeko, bi errenta-aitortpenen diru-sarrerak hartuko dira kontuan.
- c) Hala badagokio, gurasobakarreko familiaren ziurtagiria, banantze-demanda edo dibortzio epai irmoa, edo izapidea hasi izanaren egiaztagiria, eta, hala badagokio, hitzarmen arautzailea edo izapidea hasi izanaren egiaztagiria. Gurasotasun-planaren akordioa, adingabearen zaintza izanez gero.
- e) Desgaitasunaren ziurtagiria, familia unitatean %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duen kiderik bada.

Udalak ofizioz egiaztatuko ditu erroldatzea eta Udalarekiko zorrei dagokien egoera. Ofizioz egiaztatuko da Udalarekiko zorraren eta betebeharren egoera, laguntza eman aurretik.

Halaber, Udalak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari edozein motatako agiri osagarriak, deialdiaren betekizunak frogatzeko beharrezkoak badira.

Ondorio horietarako, eta eskatzaileek deialdi honetan eskatzen den dokumentazioa ez duten salbuespenezko kasuetan, Udalak egokitzen diren txostenak eskatu ahalko dizkio Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari, dirulaguntza ematea justifikatzen duen zaurgarritasun sozial, ekonomiko berezia edo beste edozein motatakoa egiaztatzen dutenak, deialdi honen 1. klausulako a) puntuan aipatzen den xedearen aplikazioarekin bat..

5.- Prestazio ekonomikoaren estaldura

Udalaren dirulaguntza osagarria izanen da beste administrazio publikoen edo entitate publiko nahiz pribatuen aldetik xede bertsuarekin etortzen diren beste laguntza edo beken aldera. Familia guztiek eskolako jantokiaren tarifaren %10 ordaindu beharko dute gutxienez.

Udalak bere aurrekontuetan partida bat sortuko du deialdi honetako laguntzetarako eta bertan finkatuko da helburu horretarako erabili beharreko diru kopurua, kontuan hartuta ikasturteari bi aurrekontu ekitaldi dagozkiola eta **diruz lagundutako hilabeteak irailtik ekainera bitartekoak izanen direla, biak barne. Nafarroako Gobernuak hilabete horietan diruz laguntzen dituen eskola-egun berberak lagunduko dira diruz, hau da, 175 egun.**

Onuradun bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa honako formula hau aplikatuz lortuko da:

Hasierako gehieneko dirulaguntza = (hileko tarifa x 10) – (Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza edo beste dirulaguntza batzuk) – (Familien ekarpena).

Hona hemen aldagaien definizioa:

Hasierako gehieneko dirulaguntza = irailtik ekainera diruz lagundu beharreko egun kopurua bider familia-unitatearen diru-sarreraren arabera dagokion tartearen eguneko gehieneko dirulaguntza (3. klausula, e puntua). Hori gehienezko zenbatekoa izanen litzateke, baldin eta formula aplikatuztik ondorioztatzen bada jantokiaren kostua bider 10 ken Nafarroako Gobernuaren edo beste administrazio publiko batzuen dirulaguntza, ken familien gutxieneko ekarpena, txikiagoa dela Udalak hasieran kalkulaturako dirulaguntza baino. Dirulaguntzaren azken zenbatekoa formula berdintzen duena izanen da.

Hileko tarifa x 10 = Onuraduna joaten den ikastetxeak onartutako hileko tarifa bider 10 hilabete.

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak edo beste batzuk = onuradunak Nafarroako Gobernutik edo beste edozein administrazio publiko edo pribatutatik jaso beharreko eskola jantokirako dirulaguntza.

Familien ekarpena = gutxienez izanen da hileko tarifa x 10 hilabete egitearen emaitzaren % 10. Nolanahi ere, familien ekarpenak honako kopuru hau bete beharko du: jantokiak hileko duen kostua bider 10 hilabete ken Udalaren hasierako gehienezko dirulaguntza eta ken Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza edo beste dirulaguntza batzuk.

Proposatutako dirulaguntzek aurrekontuko partidaren muga gainditzen badute, dirulaguntzak muga horretara egokituko dira modu proportzionalan.

6.- Tramitazioa eta ebazteko proposamena

Udaleko alor ekonomikoak egiaztatu eta baloratuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen lankidetzara, orientabidea eta irizpidea eskatzen ahalko ditu ezaugarri bereziak dituzten eskaerak aztertzeko. Era berean, eskatzaileei akatsak zuzentzeko edo aurkeztutako dokumentazioan zerbait argitzeko eskatu ahalko zaie, hamar eguneko epea emanda horretarako. Behin eskaerak aztertu eta baloratutakoan, Udaleko alor ekonomikoak ebazpen proposamena egingen dio Udaleko organo eskudunari.

7- Laguntzen ebazpena, jakinarazpena, justifikazioa eta ordainketa

Udaleko Gobernu Batzarrak ebaztuko du dirulaguntza ematea edo ukatzea, eta horren berri emanen die familiei, onuradunek ikasten duten ikastetxe publikoari eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari.

Udaleko Gobernu Batzarrak erabakia hartu ondoren, aurrekontuan eskura dagoen dirua ziurtatutakoan, eta ikastetxeekin elkarlanean, dirulaguntzak emanen dira, ikastetxe bakoitzeko arduradunek adierazitako kontu zenbaki bakarrean, bi ordainketa eginez: bata, hasierakoa, dirulaguntzaren %60, dirulaguntza ematen denean; bigarrena, gainerako %40, ikasturtearen amaieran, dirulaguntzaren onuradunak ikastetxeko jantokira joan direla frogatu ondotik.

Ikastetxeak, urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, ziurtagiria aurkeztu beharko du udaleko bulegoetan, eta bertan zehaztuko du ikasle bakoitza diruz lagundutako ikasturtean jantokira zenbat egunetan joan den egiazki. Horretarako Udalak alde aurretik emanen dion eranskina erabiliko du.

8.- Aplikatu beharreko araudia.

Deialdi honetan jasotzen ez den orotan honako hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta, osagarri gisa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko Foru Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren

21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta arlo horretan aplika daitezkeen gainerako araudia.

9.- Errekurtsoen araubidea

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:

1. Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren egile den organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik hasita.
2. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.
3. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Berribeitin, 2024ko apirilaren
30ean

Alkate udalburua
Félix Remírez Hoyos.